



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021ko maiatzak 11

Vitoria-Gasteiz, 11 de mayo de 2021

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 2,1 MILIOI EURO BIDERATU DITU LANBIDE HEZIKETAKO EREMU ESTRATEGIKOETAN JARDUERA-ILDOAK GARATZEKO

Gobernu Kontseiluak gaurko saioan onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeei zuzendutako dirulaguntzatarako deia egiten duen Agindu bat.

2.145.800 euroko zenbatekoa duen deialdi honen helburua da itunpeko ikastetxeetako irakasleek parte hartzea, 2021-2022 ikasturtean, Lanbide Heziketarako estrategikotzat jotzen diren esparruetako jarduera-ildoetan. Honako plan hauetan jasotzen diren jarduera-ildoez ari gara: Lanbide Heziketako V. Euskal Plana; Euskal Hezkuntza Sistemako Digitalizazio Iraunkorreko eta Sistema Adimendunen Plana; eta Euskadiko Lanbide Heziketako Trantsizio Berderako Plana.

Beraz, deialdiaren xedea da Lanbide Heziketaren eremuan eraldaketa digitalari eta eraldaketa berde zein jasangarriari erantzuna ematea, irakasleek Hezkuntza Sailak bultzatutako jardueretan eta proiektuetan parte hartuz. Irakasleek jarduera horietan parte hartzeak berekin dakar profesional hauek beren gaitasunak indartzea, teknologikoki oso aurreratuak diren inguruneei erantzuteko. Gainera, Lanbide Heziketak enpresei laguntzen parte hartzea sustatzen du, batez ere enpresa txiki eta ertainei laguntzen, eta enpresei eskainitako estaldura handitzea lortzen du. Era berean, irakasle horiek gaitasun digital handiagoa lortzen dute, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu berritzaileak eta jasangarriak sustatzeko. Era honetan, jarduera horien bidez irakasleek jasotako gaitasuna eta balioak Lanbide Heziketako ikasgeletara eta ikasleenganaino iritsiko dira.

Hurrengo ikasturterako deialdi honen xede diren jarduerak, eta beraz, liberatutako irakasleek parte hartuko dutenak, eremu estrategiko hauetan multzokatzen dira:

- Berrikuntza aplikatua
- 4.0 testuinguruko ikaskuntza
- Elkarlaneko adimena eta malgutasun eraldatzailea
- Berrikuntza teknologikoa eta sistema adimendunak
- Biozientziak eta garapen jasangarria
- Egitura organiko espezializatuak

Dirulaguntza deialdi honen bidez jasoriko zenbatekoak pertsonal gastuetarako izango dira, dela ordezko irakasleak kontratatzeke, dela ikastetxean jardunean diren irakasleen kontratuak luzatzeko.

Hezkuntza

LANKIDETZA-HITZARMENA, HEZKUNTZA SAILA ETA EUSKAMPUS FUNDAZIOAREN ARTEKOA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du Hezkuntza Sailaren eta Euskampus Fundazioaren arteko lankidetza-hitzarmena sinatzea. Lau urteko iraupena izango duen hitzarmenak bi aldeen arteko harremana arautzen du, bataren zein bestearen betebeharrak eta konpromisoak jasotzeaz gain.

Hitzarmen honen arabera, Hezkuntza Sailak dokumentuan jasotzen diren helburuekin bat datozen zuzendaritza eta koordinazio-ekintzak egiteko konpromisoa hartzen du, baita Euskampus Fundazioa finantzatzeko ere. Bestetik, Euskampus Fundazioak sinatu beharreko dokumentuan zehazten diren helburuak betetzeko konpromisoa hartzen du.

Hitzarmenean jasotzen diren helburu nagusien artean nabarmentzen da, Euskampus agregazio-eremua osatzen duten erakundeen gaitasunak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako beste erakunde batzuekin eta nazioarteko erakundeekin (berezi Akitaniakoekin) lotuko dituzten kooperatibajarduerak bultzatzea eta kudeatzea.

Zientzia eta ikerketa zientifiko eta teknologikoaren arloko sentsibilizazio, dibulgazio eta prestakuntza-planak euskal gizartean sustatzea ere bada jasotako beste helburuetako bat.

Era berean, hitzarmenaren xede da Euskadiren nazioarteko proiektzioa lagunduko duten ikerketa-ekintzak egitea *Lehendakari Agirre Center*-en bidez, erreferentziatzeko nazioarteko unibertsitateekin ezarritako Gizarte Zientzien esparruko proiektu berezien bidez, hala nola, New Yorkeko Columbia Unibertsitatearekin, Seton Hall University-rekin eta George Mason University-rekin.

Euskampus Fundazioa

Euskampus, beste jarduera batzuen artean, Euskal Herriko eraldaketa sozial, ekonomiko eta kulturalaren prozesuan trakzio-elementu gisa jarduten duen fundazioa da, ezagutzaren gizartearen nazioarteko abangoardian kokatzeko.

Fundazioaren jarduna, besteak beste, honako jarduketa-ildo hauen garapenera zuzenduta dago: batetik, elkarlaneko ikerkuntza eta berrikuntza babestea, prestakuntzako, ikerkuntzako, garapeneko eta berrikuntzako lankidetza-programak eta lankidetza-proiektuak sustatzeko, eta jarduera horien euskarri izango diren egiturak sortzea; eta bestetik, espazio komunak ezartzea, lankidetza ahalbidetuko duten ikerketa, transferentzia eta berrikuntzarako. Transferentzia horrek pertsonen eta beren inguruaren zerbitzura dagoen ekonomia sustatzeko laguntza eman beharko du, baita bidezkoago, jasangarriago eta zuzenagoa den garapen soziala sustatzeko ere.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioak

ETXEBIZITZAK 62 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU ALOKAIURIAN ETA BIRGAITZEAN LAGUNTZEKO DIRULAGUNTZA PROGRAMETARA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak 62.130.000 euro bideratuko ditu, guztira, gizarte-alokairurako eta etxebizitzak birgaitzeko laguntza-programak finantzatzera. Hala jasotzen da Iñaki Arriola sailburuaren aginduan; hura Gobernu Kontseiluari jakinarazi zaió. Agindu horren bidez, publizitatea eman zaie 2021 ekitaldi honetan alokairua sustatzeko eta etxebizitza eta eraikinak birgaitzeko urte anitzeko dirulaguntzen ildoak finantzatzeko dituzten ordainketa- eta konpromiso-kredituei.

Gobernu Kontseiluaren saioan, baimena eman da, halaber, programa horien aurrekontu-estaldurarako. Honako hauek dira programak:

- Egiturazko-erreformen (estalkiak eta fatxadak), irisgarritasunaren (igogailuak jartzea, funtsean) eta eraginkortasun energetikoaren bidez, bizitegi-eraikinen eta etxebizitzaren birgaitzea sustatzeko, 2,4 milioi euro esleitu dira dirulaguntzetan. Kopuru horretatik, 7,3 milioi ekitaldi honetan sartu dira aurrekontuan, eta 14 milioi, 2021ean. Dirulaguntza horien bidez mobilizatuko diren inbertsio pribatuak 400 milioi euro baino gehiagokoak direla kalkulatu da (funtsean, jabeen erkidegoen kontura).
- Gaztelagun gazteei merkatu librean etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzen programak 9,5 milioi euro beraganatuko ditu 2021ean emandako dirulaguntzetan eta laguntzaren indarreko 3 urteetan, baldin eta aldi horretan baldintzak mantentzen badira.
- Errentamendu babestuaren sustapena dela eta, ekitaldi honetan eta hurrengo bietan 16,8 milioi euro bideratuko dira. Funtsean, sustapen berriko eta aurretik zeuden etxebizitzak erosi ondoren birgaitzeko, sustatzaile publiko eta pribatuen aldetik alokairuko etxebizitza eskuragarriko eta zuzkidura-bizilekuak sustatzeko eragiketen sustapenean erabiliko dira.
- Guztira, 14,1 milioi esleituko dira finantza-erakundeek sustatzaile publiko eta pribatuei, jabeen erkidego eta etxeei eta erabilera-lagapenaren egoeran dauden irabazi-asmorik gabeko elkarte eta kooperatibei honako hauetarako ematen dizkieten kredituen interesguneak diruz laguntzeko: alokairu babestuko etxebizitzak sustatzeko eta birgaitzeko (aurretiko egiturazko birgaitzearen bidez hutsik dauden etxebizitzaren irisgarritasuna eta mobilizazioa), 2021eko Finantza Hitzarmenaren bidez.
- Erabilitako etxebizitza librea erosteak 200.000 euroko aurrekontua izango du, eta etxebizitza babesturako lurzoruaren udal-ondareak eratzea, 50.000koa.

Osasuna

EUSKO JAURLARITZAK EPEA IREKI DU FINANTZAKETA PUBLIKOA DUTEN TRATAMENDU MEDIKOEKIKO ATXIKIPENARI BIDE EMATEKO LAGUNTZAK ESKATZEKO

- **Osasun Sailak gomendatzen du eskabideak telematikoki izapidetzea eta, aurrez aurre izapidetzea hautatzen bada, Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzetan, Osakidetzaen osasun-zentroetan eta Zuzenean Herritarrei Arreta emateko Zerbitzu Bulegoetan egitea**

Tratamendu medikoeikiko atxikidura bermatzeko, eta agindutako medikazioa hartzeari inork ez diola arrazoi ekonomikoengatik utziko bermatzeko diru-laguntzak eskaintzen ditu Eusko Jaurlaritzak, Espainiako Gobernuak ezarritako koordainketa farmazeutikoaren aurrean. Gobernu Kontseiluak argi berdea eman die laguntza horiei, eta **eskabideak aurkezteko epea irekita egongo da EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. abenduaren 10era arte.**

Laguntza horiek Eusko Jaurlaritzak koordainketa farmazeutikoaren aurka une oro erakutsi duen jarrera dute testuinguru; Euskadi Estatuan lehen erkidegoa izan zen errenta baxuko pertsonentzako eta talde ahulentzako (pentsiodunak, langabeak, egoera irregularrean dauden etorkinak...) konpentsazio-neurriak ezartzen, pertsona batek ere agindu dioten medikazioa motibo ekonomikoengatik hartzeari uzten ez diola bermatzeko.

Gaur iragarritako deialdia, 2020 ekitaldian, 2020ko abenduaren 1aren eta 31ren arteko gastu-aldiari dagokiona da, eta, 2021 ekitaldian, 2021eko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era bitartekoa.

Laguntza hauek hasi zirenetik –zortzigarren urtez jarraian eman dira–, 669.000 eskabide baino gehiago izapidetu ditu Eusko Jaurlaritzak, eta 37 milioi eurotik gora eman du; kopuru horri 2021eko aurrekontuetan esleitutako 7.429.800 euroak gehitu behar zaizkio (horiek handitu daitezke, beharrik egonez gero). Iaz, 2020an –urte berezia pandemia dela eta–, Eusko Jaurlaritzak 4.102.173 euro bideratu zituen guztira 2019ko deialdiko bigarren epeari eta 2020ko deialdiko lehen epeari dagozkien laguntzen onuradunentzat.

Nabarmendu behar da 2021ean areagotu egin dela farmazia-ekarpenik egin behar ez duten kolektiboen kopurua. Hala ere, pertsona horien eguneratzea 2021eko urtarrilaren 1aren ostean egin zenez, pertsona horiek eskabideak aurkeztera animatzen ditugu, 2020ko abenduan eta 2021ean haien egoera aldatu den egunera arte eginiko ordainketak itzultzeko.

Osasun Sailak eskabidea Interneten bidez izapidetzea gomendatzen du, Eusko Jaurlaritzaren webguneko honako helbide hauetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/336316> eta <https://www.euskadi.eus/servicios/0336315>. Aurrez aurre aurkeztu nahi bada,

Osasun Sailaren lurralde-ordezkaritzetan, Osakidetza osasun-zentroetan eta Zuzenean Herritarrei Arreta emateko Zerbitzu Bulegoetan aurkeztu ahalko da.

Laguntza horien onuradunak honako hauek izango dira: **Gizarte Segurantzako pentsiodunak eta haien onuradunak**, baldin eta urteko errentetan 18.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak badituzte eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako osasun-txartel indibidualaren titular badira; **langabeziako lege-egoeran daudenak eta haien onuradunak, baldin eta urteko errentetan 18.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrerak badituzte** eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako osasun-txartel indibidualaren titular badira; **lanagatiko diru-sareren errenta osagarriaren modalitatean diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten** eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako osasun-txartel indibidualaren titular diren pertsonak, eta **Espainiako estatuan egoiliar gisa erregistratuta eta baimenduta ez dauden eta Euskal Autonomia Erkidegoak emandako eskubide horren aitortpena egiaztatzeko dokumentua duten atzerritarrak.**

Bi eskabide modalitate daude: **sinplifikatua**, nagusiki OTI txartela duten eta Euskadiko farmazietan gastu farmazeutikoak egin dituzten pertsonen zuzendua, eta **arrunta**, Euskaditik kanpoko farmazietan gastu farmazeutikoak egin dituzten pertsonen zuzendua, baita MUFACE, MUGEJU eta ISFASeko mutualistei ere.

Eskatutako laguntzak bi epetan ordainduko dira (2021eko hirugarren hiruhilekoan eta 2022ko lehen hiruhilekoan), baina, eskabidea 2021eko uztailaren 15aren ondoren aurkezten bada, ordainketa bakarra egingo da, 2022ko lehen hiruhilekoan.

Osasuna

OSASUN SAILAK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK ZABALDU EGIN DUTE NAHASMENDU MENTAL LARRIA DUTEN PERTSONEI ARRETA SOZIOSANITARIOA EMATEKO HITZARMENA, ETA 827 PLAZA IZANGO DITU

Gobernu Kontseiluak baimena eman du Osasun Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaz hitzarmena zabaltzeko; horrela, egoitza-bizitokirako gaur egun dauden 783 plazez gainera, **beste 44 plaza egongo dira. Guztira, 827 pertsona** izango dira hitzarmen honen onuradun, honela banatuta: 392, egoitza-zentroetan edo laguntzadun etxebizitzetan, eta 435, eguneko zentroetan.

Hitzarmena zabaltzean, era berean, **areagotu egingo da 2021erako aurreikusitako aurrekontua, 775.000 euroan, eta 2022rako aurreikusitakoa, 900.000 euroan.** Akordioa zabaltzeari eta hobetzeari esker, hamabi pertsona, apirilaren erdialdetik, beste zentro batean bizi dira; zentro hori Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (GUFÉ) kudeatzen du eta Santurtziko Itsastarren Etxean dago. Diziplina anitzeko profesionalen talde batek ematen du gaixotasun mental kronikoa duten eta haien ohiko ingurunean premiei egoki erantzun ezin dieten pertsonentzako Santurtziko zentro horretan arreta, Osakidetzak lagunduta.

Egoitzak, tutoretzapeko pisuak eta eguneko zentroak nahasmendu mental larria duten eta ospitale-intentsitateko zaintzak behar ez dituzten baina, aldi berean, haien etxeetara itzultzeko baldintza egokietan ez dauden pertsonentzako baliabide egokienak dira. Pertsona horiek jarraituko dute Osakidetzaren eskutik behar duten osasun-asistentzia ambulatorioa jasotzen eta, bestalde, zentro mota horretako gizarte-zerbitzuen zorroko berezko prestazioak.

Erakundeen arteko elkarlana

Hitzarmen hau 2019an jarri zen indarrean, eta 2022ra arte luzatuko da; helburu du baliabide gehiago ematea eguneko arretarako zentroei, laguntzadun etxebizitzetara edo egonaldi luzeko egoitzetara, pertsona horiei arreta indibidualizatuagoa eskaintzeko.

Nahasmendu mental larria edo kronikoa duten pertsonen zuzendutako zentroetako zerbitzu eta prestazioak foru-aldundien eskumena dira, eta haiei dagokie onuradunek zentro horietara sarbidea izateko bide ematea. Eusko Jaurlaritzak, bestalde, elkarlanean dihardu zentro horiek abian jartzeko, eta beharrezkoa den osasun-asistentzia ematen du. Hitzarmen honi esker, gainera, finantza aldetik Euskadiko gizarte-zerbitzuen sistemako zentroetan kolektibo horretarako plazen garapenean jardungo du elkarlanean, haietako izaera soziosanitarioa aintzat hartuta.

Hitzarmena zabaltzeak erakunde biek berme publikoko gizarte-zerbitzuetan aurrera egiteko duten borondate argia erakusten du, kasu honetan osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen parte-hartzerako eta bizi-kalitateko laguntzak hobetzeko.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK BAIMENA EMAN DU BIZITZA PERTSONALA ETA FAMILIAKOA BATERAGARRI EGITEKO ETA SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak azaldu duen kontziliaziorako eta seme-alabak dituzten familientzako prestazioetarako ohiko laguntza-paketeari. Guztira, Eusko Jaurlaritzak 64 milioi euro inguru inbertituko ditu bi horien artean, 2021. urte honetan.

37 milioi ohiko kontziliazio-laguntzak finantzatzera bideratuko dira; izan ere, badaude pandemiaren eraginak arintzeko hartu diren aparteko beste ildo batzuk. Laguntza horiek duela bi hamarkada baino gehiago hasi ziren Euskadin banatzen, eta zenbait jarduketa-ildo dituzte

Oro har, familiei laguntzeko neurriek honako hauek barne hartzen dituzte:

- Semeak edo alabak zaintzeko lan-eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak. (2019an abian jarri diren haurdun geratzen ez diren gurasoentzako amatasun/aitatasun laguntzak barne).
- Eszedentzia-egoeran edo lanaldi-murrizketan dauden langileentzako laguntzak, seme-alabak, mendekotasun-egoeran dauden familiartekoak edo osasun-egoera oso larrian dauden familiartekoak zaintzeko.
- Seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzak.

Zehazki, 28 milioi euroko partida seme-alabak zaintzeko eszedentzia-egoeran edo lanaldi-murrizketan dauden langileei erantzuteko diseinatuta dago. Beste ia 700.000 euro daude, 3 urtetik beherako seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeko laguntzetarako. Eta 1,14 milioi euro eszedentzia-egoeran edo lanaldi-murrizketan dauden pertsonentzako laguntzetara bideratzen dira, seme-alabak, mendekotasun-egoeran dauden familiartekoak edo osasun-egoera oso larrian dauden familiartekoak zaintzeko. Gainera, 7 milioi amatasun-lizentzia hartu ez duten gurasoentzako laguntzetarako erreserbatzen dira.

Laguntzak ume bakoitzeko

Beste 27 milioi seme-alabak kargura dituzten familiei laguntzeko dirulaguntzetara bideratuko dira. Horrela, laguntza ekonomikoa eman nahi zaie familiei, jaiotzaren, adopzioaren, adoptatu aurreko bizikidetzarako zaintzaren ordezkartzaren edo tutoretzaren bidez seme eta alaben ondorioz eragiten diren aparteko zailtasunei arreta ematen laguntzeko.



Laguntzak emateko epeak eta ordainketa-kopurua, egoeraren arabera		
Seme edo alaba kopurua	Ordainketa-kopurua	Noiz/Egoera
Lehenengo semeagatik edo alabagatik	1 ordainketa	<ul style="list-style-type: none"> Jaiotza Adopzioa Adopzio aurreko harrera Tutoretza (18 urtetik beherakoak)
Bigarren semeagatik edo alabagatik	3 ordainketa:	1 <ul style="list-style-type: none"> Jaiotza Adopzioa Adopzio aurreko harrera Tutoretza (18 urtetik beherakoak)
		1 1 urte betetzean
		1 2 urte betetzean
Hirugarren semeagatik edo alabagatik eta hurrengoengatik	7 ordainketa:	1 <ul style="list-style-type: none"> Jaiotza Adopzioa Adopzio aurreko harrera Tutoretza (18 urtetik beherakoak)
		1 1 urte betetzean
		1 2 urte betetzean
		1 3 urte betetzean
		1 4 urte betetzean
		1 5 urte betetzean
1 6 urte betetzean		

Laguntza hori gutxienez 400 eurokoa da eta, gehienez, 900 eurokoa. Zenbateko hori aldatu egiten da, familia-errentaren arabera.

Laguntzaren zenbatekoa, familia-errentaren arabera		
Familia-errenta	Seme edo alagabatiko laguntzaren zenbatekoa	Desgaitasuna edo mendekotasuna duen seme edo alagabatiko laguntzaren zenbatekoa
20.000 € edo gutxiago	900 €	1.800 €
20.000 € eta 30.000 € bitartean	500 €	1.000 €
30.000 € baino gehiago	400 €	800 €

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK IA 6 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU KULTURA SEKTOREKO PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO 2021EKO COVID LAGUNTZETAKO ESKAEREI ERANTZUTEKO

- Dirulaguntzetara bideratutako hasierako 1,1 milioi euroko kreditua 5,9 milioi eurora handitzea onartu du gaurko Gobernu Kontseiluak
- Guztira 416 eskabide jaso dira eta horietatik 361 onartu dira
- Kultura eta Hizkuntza Politika sailak izapide guztiak bukatu eta berehala laguntzak ordaintzen hasteko asmoa du

Gobernu Kontseiluak 2021ean kultura arloko profesionalei zuzendutako COVID-19 laguntzetarako hasieran aurreikusitako gehienezko dirua gehitzea onartu du gaur. Horrela hasierako 1,1 milioi euroak beste 4.810.000 euroan gehituko dira jasotako eskaerei ahalik eta erantzun egokiena eman ahal izateko. Horrela, Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 5.910.000 euro bideratuko ditu kultura arloko profesionalei dirulaguntza berezi hauen bitartez laguntzeko.

Martxoaren 17tik apirilaren 16ra bitartean izan dute aukera kultura arloko profesionalek COVID-aren eragina arintzea helburu duten diru-laguntza hauek eskatzeko. 2019ko fakturazioarekin alderatuta, 2020an % 20tik gorako fakturazio murrizketa izan zuten pertsona autonomo, enpresa eta kulturako erakunde profesionalek izan dute eskaerak aurkezteko aukera, hori izan da deialdiak biltzen zuen baldintza nagusia.

Hilabeteen guztira 416 eskabide jaso ziren eta horietatik, baldintzak betetzen dituztelako, 361 eskaera onartu dira. Sektoreka honako hau da dirulaguntzetara aurkeztutakoen banaketa:

Sektorea	Eskaera kopurua
Musika	138
Arte Eszenikoak	115
Ikus-entzunezkoak	99
Bitartekaritza/kultura eta aholkularitza	19
Ikusizko arteak	18
Arkeologia eta ondarea	13
Literatura eta liburua	11
Bertsolaritza	3
Guztira	416

Eskaerak aztertu ondoren ikusi da iaz kultur sektoreko profesionalen fakturazio jaitsiera guztira 88,2 milioi eurokoa izan zela. Horrek esan nahi du, batzaz beste, ehuneko 64,6ko fakturazio jaitsiera izan zutela. Kultura eta Hizkuntza Politika

sailaren asmoa eskaera guztiei modu egoki eta eraginkorrean erantzutea da eta hori dela eta, hasierako 1,1 milioi euroko diru-poltsa 5,9 milioi eurora igoko du. Kulturaren sektoreko profesionalak pandemiaren ondorioz bizi izan duten egoera zaila arintzea da helburua. Jasotako eskaeren kopuruaren arabera, eskatzaile bakoitzak batz best 16.364 euro jasoko ditu.

Jarduera asko bertan behera geratu dira, jardueraren moteltzea ere nabarmena eta aforoak ere murriztu dira, beste neurri batzuen artean. Horrek testuinguru aldakorak eta ziurgabetasun maila handia eragin ditu sektorean kultur egituren bizi-iraupena kolokan jarritz. Kulturaren Euskal Behatokiak pandemiaren hasieran kaleratutako datuen arabera kultur jarduera % 82,6 murriztu zen eta lanpostuen % 43 galdu zen. Nazioarteko hainbat ikerketek ere horrela erakusten dute eta Europar Batasunean esate baterako, sektorerik kaltetuenetako bat izan da aire garraioaren atzetik eta turismoaren aurretik. Horrela adierazten du *“Rebuilding Europe. The cultural and creative economy before and after the COVID19”* txostenak.

Eusko Jaurlaritzak sortzaileei eta kultura arloko profesionali laguntzeko duen konpromisoa berresten du diru-laguntzetara hauetarako kreditu gehigarria onartzeak. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak eskaera guztien izapideak bukatuta berehala dirulaguntzak ordaintzen hasteko asmoa du.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 2,4 MILOI EUROKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA ONARTU DU EUSKAL KULTURA ONDAREAREN GARRANTZIA AZPIMARRATZEKO ETA HEDATZEKO

Eusko Jaurlaritzak 2.400.000 euroko diru-laguntza deialdia onartu du, gaurko Gobernu Kontseiluan, 2021-2023 aldirako Euskal Kultura Ondarearen garrantzia azpimarratu eta hedatzeko jarduerak sustatzeko. Euskal Kultura Ondarea zaindu, aberastu, babestu, hedatu eta sustatzeko helburua duten diru-laguntzak dira gaur onartutakoak.

Honako hauek izango dira Kultura eta Hizkuntza Politika sailak diruz lagunduko dituen jarduerak:

- Babes Bereziko edo Ertaineko Kultura Ondasunen gaineko jarduketak, aitortuak edo aitortuak izateko espedientea hasita dutenak, taldeko kategoriarekin.
- Babes Bereziko edo Ertaineko Kultura Ondasunak berrerabiltzea, landa-izaerakoak edo industrialak, aitortuak edo aitortuak izateko espedientea hasita dutenak, kategoria indibidualarekin.
- Babes Bereziko edo Ertaineko Kultura Ondasunen garrantzia nabarmentzea eta hedatzea, balioztatzea edo aintzatestera bideratutako jarduerak.
- Babes Berezi edo Ertaineko Kultura Ondasun higiezinak edo haien ingurunea desjabetzeko finantzaketa.
- Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden ondasunak edo babestuak izateko espedientea irekita dutenak zaindu, aberastu eta babesteko beste edozein jarduera.

Diruz lagunduko diren proiektuak 2021. ekitaldian hasi beharko dira edo hasita egon beharko dute, eta gehienez, 2023ko abenduaren 31a baino lehenago amaitu beharko dira. Ondasunen jabe diren pertsona fisiko edo juridikoek edo irabazi-asmorik gabeko pertsona juridiko publiko zein pribatu interesdunek eskatu ahal izango dituzte laguntzak.

2020-2022 aldian Euskal Kultura Ondarea zaintzeko eta babesteko 32 proiektu lagundu ziren diruz.

Educación

EDUCACIÓN DESTINA 2,1 MILLONES DE EUROS PARA EL DESARROLLO DE LÍNEAS DE ACTUACIÓN EN ÁMBITOS ESTRATÉGICOS DE LA FORMACIÓN PROFESIONAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, una Orden de subvenciones dirigida a centros concertados de Formación Profesional.

Con un importe económico de 2.145.800 euros, el objeto de la convocatoria es la participación de personal docente de los centros privados concertados para el desarrollo, durante el curso académico 2021-2022, de las líneas de actuación de los ámbitos definidos como estratégicos para la Formación Profesional, en los siguientes planes: V Plan Vasco de Formación Profesional; Plan de Digitalización Sostenible y Sistemas Inteligentes en el Sistema Educativo Vasco; y el Plan Integral para una Transición Verde en la Formación Profesional vasca, capacitación de las personas y apoyo a la competitividad sostenible de las Pymes.

La convocatoria busca, por tanto, dar respuesta a la transformación digital y a la transformación verde y sostenible en el ámbito de la Formación Profesional, mediante la participación de su profesorado en actividades y proyectos impulsados por el Departamento de Educación. La participación del profesorado en estas actividades conlleva que éstos refuercen sus competencias dirigidas a dar respuesta a entornos tecnológicamente muy avanzados. Fomenta, además, la participación de la Formación Profesional en el apoyo a empresas, en especial a pymes, y consigue ampliar la cobertura ofrecida a las mismas. De igual manera, estos docentes adquieren mayor capacitación digital para promover procesos de enseñanza-aprendizaje innovadores y sostenibles para el futuro. La capacitación y valores adquiridos por el profesorado en el desarrollo de esas actividades deberá verse transferida al aula y al alumnado de FP.

Las actuaciones objeto de la convocatoria y en las que participará el personal docente liberado, se agrupan en los siguientes ámbitos estratégicos:

- Innovación aplicada
- Aprendizaje en el contexto 4.0
- Inteligencia colaborativa y flexibilidad transformadora
- Innovación tecnológica y sistemas inteligentes
- Biociencias y desarrollo sostenible
- Estructuras orgánicas especializadas

Las cuantías de esta convocatoria de subvenciones se destinarán a gastos de personal, sea la contratación de personal sustituto, sea para la ampliación de contrato del personal docente del propio centro.

Educación

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN Y EUSKAMPUS FUNDAZIOA

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy la suscripción de un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación y Euskampus Fundazioa. Con una duración de cuatro años, el convenio de colaboración regula la relación entre ambas partes y define las obligaciones y compromisos que adquieren cada una de ellas.

En virtud de este convenio, el Departamento de Educación se compromete a realizar acciones de dirección y coordinación, en línea con los objetivos que se recogen en el mismo documento, además del compromiso de financiar Euskampus Fundazioa. Por su parte, Euskampus Fundazioa adquiere el compromiso de llevar a cabo los objetivos que se plasman en el documento a suscribir.

Entre los principales objetivos del convenio destaca, por una parte, el de impulsar y gestionar actuaciones cooperativas que conecten las capacidades de las entidades que configuran el espacio Euskampus, y de éstas con otras entidades del Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, así como con entidades internacionales, especialmente de Aquitania.

También es objeto del convenio promover planes de sensibilización, divulgación y formación en materia de ciencia e investigación científica y tecnológica en la sociedad vasca.

De igual manera, el convenio busca realizar acciones de investigación que apoyen la proyección internacional de Euskadi a través del Lehendakari Agirre Center, mediante los proyectos singulares en el marco de las Ciencias Sociales establecidos con las Universidades internacionales de referencia: Universidad de Columbia en Nueva York, Seton Hall University y George Mason University.

Euskampus Fundazioa

Euskampus es una fundación dedicada, entre otras actividades, a actuar de elemento tractor en el proceso de transformación social, económica y cultural del País Vasco para situarle en la vanguardia internacional de la sociedad del conocimiento.

Su actividad se orienta al desarrollo, entre otras, de las siguientes líneas de actuación: por una parte, a apoyar la investigación e innovación colaborativa fomentando la realización de programas y proyectos conjuntos de formación, investigación, desarrollo e innovación, así como la creación de estructuras que sirvan de soporte a tales acciones; y por otra, a establecer espacios comunes para investigación, transferencia e innovación que permitan cooperación y cuya transferencia contribuya a promover una economía y un desarrollo social más justo, sostenible y equitativo.

Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

VIVIENDA DESTINA 62 MILLONES DE EUROS A PROGRAMAS SUBVECONALES DE APOYO AL ALQUILER Y LA REHABILITACION

El Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes destinará un total de 62.130.000 euros a financiar programas de ayudas al alquiler social y a la rehabilitación de viviendas. Así se recoge en la Orden del consejero Iñaki Arriola puesta en conocimiento al Consejo de Gobierno, por la que se da publicidad a los créditos de pago y compromiso que financiarán las líneas de subvenciones plurianuales que se concederán en el presente ejercicio 2021 en fomento al alquiler y rehabilitación de viviendas y edificios.

En la sesión del Consejo de Gobierno se ha dado también autorización a la cobertura presupuestaria de estos programas, que son los siguientes:

- Para el impulso de la rehabilitación de edificios residenciales y viviendas mediante reformas estructurales (cubiertas y fachadas), accesibilidad (instalación ascensores, fundamentalmente) y eficiencia energética se asignan 21,4 millones de euros en subvenciones. De ellos, 7,3 millones se presupuestan en el presente ejercicio y 14 millones en 2021. Se estima en más de 400 millones de euros las inversiones privadas (básicamente por cuenta de las comunidades de personas propietarias) que se movilizarán con las citadas subvenciones.
- El programa Gaztelagun de ayudas a personas jóvenes para el pago del alquiler de vivienda en el mercado libre absorberá 9,5 millones en subvenciones concedidas en 2021 y a abonar durante los 3 años de vigencia de la ayuda si se mantienen las condiciones en dicho periodo.
- A la promoción del arrendamiento protegido se destinarán durante el presente ejercicio y los dos siguientes 16,8 millones de euros. Fundamentalmente, se emplearán en el fomento de operaciones de nueva promoción o mediante rehabilitación de viviendas preexistentes previa su adquisición, de viviendas en alquiler asequible por parte de promotores públicos y privados, así como a la promoción de alojamientos dotaciones (ADAs).
- Un total de 14,1 millones se asignan para subsidiar los puntos de interés de los créditos que concedan las entidades financieras a promotores públicos y privados, a hogares y comunidades de personas propietarias, y a asociaciones sin ánimo de lucro y cooperativas en cesión de uso, para la promoción de viviendas de alquiler protegido y rehabilitación (accesibilidad y movilización vivienda deshabitada mediante rehabilitación estructural previa) a través del Convenio Financiero 2021.
- La adquisición de vivienda libre usada tendrá un presupuesto de 200.000 euros y la formación de patrimonios municipales de suelo con destino a vivienda protegida, 50.000.

Salud

EL GOBIERNO VASCO ABRE EL PLAZO PARA SOLICITAR LAS AYUDAS DESTINADAS A FACILITAR LA ADHERENCIA A LOS TRATAMIENTOS MÉDICOS QUE ESTÉN SUJETOS A FINANCIACIÓN PÚBLICA

- **El Departamento de Salud recomienda tramitar las solicitudes de forma telemática y, si se opta por el modo presencial en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Salud, en los centros de salud de Osakidetza y en las Oficinas del Servicio de Atención Ciudadana-Zuzenean**

El Gobierno Vasco ofrece **ayudas para asegurar la adherencia a los tratamientos médicos** frente al copago farmacéutico impuesto por el Gobierno español, y garantizar que ninguna persona deje de tomar la medicación prescrita por motivos económicos. El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a estas ayudas y **el plazo para la presentación de las solicitudes estará abierto desde el día siguiente de su publicación en el BOPV hasta el 10 de diciembre.**

Estas ayudas se enmarcan en la oposición mostrada en todo momento por el Gobierno Vasco al copago farmacéutico, un rechazo firme que propició que Euskadi fuera la primera comunidad del Estado que implementó medidas de compensación destinadas a personas con rentas bajas y grupos desfavorecidos (pensionistas, personas desempleadas, personas inmigrantes en situación irregular...), para garantizar que ninguna persona deje de tomar la medicación prescrita por motivos económicos.

La convocatoria anunciada hoy es la correspondiente al periodo de gasto comprendido, en el ejercicio 2020, entre el 1 de diciembre y el 31 de diciembre de 2020 y, en el ejercicio 2021, desde el 1 de enero hasta el 30 de noviembre de 2021.

Desde el inicio de estas ayudas, concedidas **por octavo año consecutivo**, han sido más de **669.000 las solicitudes tramitadas** por el Gobierno Vasco, por un **importe superior a los 37 millones de euros**, a los que hay que añadir los 7.429.800 consignados en los presupuestos de 2021 (ampliables en caso de necesidad). **El pasado año 2020, año excepcional por la pandemia, el Gobierno Vasco destinó un total de 4.102.173 euros** a las personas beneficiarias de las ayudas correspondientes al segundo plazo de la convocatoria de 2019 y al primer plazo de la convocatoria de 2020.

Cabe destacar que en 2021 se ha aumentado el número de **colectivos que quedan exentos de recargo** en farmacia. No obstante, dado que la actualización de estas personas se produjo con posterioridad al 1 de enero de 2021, se anima a que dichas personas presenten sus solicitudes para que se les

abone los pagos efectuados en diciembre de 2020 y hasta la fecha del cambio de su situación en 2021.

El Departamento de Salud recomienda la tramitación de la petición a través de internet en las siguientes direcciones de la web del Gobierno Vasco (<https://www.euskadi.eus/servicios/336316> y <https://www.euskadi.eus/servicios/0336315>).

En caso de optar por el modo presencial, las solicitudes podrán presentarse en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Salud, en los centros de salud de Osakidetza/Servicio vasco de salud, en las Oficinas del Servicio de Atención Ciudadana-Zuzenean. Cabe señalar que el abono de las ayudas no se hará en función del orden de presentación.

Serán beneficiarios de estas ayudas las **personas pensionistas de la Seguridad Social y sus beneficiarios**, que cuenten con unos ingresos en rentas anuales inferiores a 18.000 euros y sean titulares de la Tarjeta Individual Sanitaria expedida por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco; las **personas en situación legal de desempleo y sus beneficiarios, con ingresos en rentas anuales inferiores a 18.000 euros** y sean titulares de la Tarjeta Individual Sanitaria expedida por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco; las **personas que perciban la renta de garantía de ingresos en su modalidad de renta complementaria de ingresos de trabajo** y sean titulares de la Tarjeta Individual Sanitaria expedida por el Departamento de Salud del Gobierno Vasco; y las **personas extranjeras no registradas ni autorizadas como residentes en el Estado español que ostenten el correspondiente documento acreditativo de reconocimiento de ese derecho expedido por la Comunidad Autónoma de Euskadi**.

Existen dos modalidades de solicitud: la **simplificada**, dirigida principalmente a personas con tarjeta TIS que hayan realizado gastos farmacéuticos en farmacias de Euskadi y la **ordinaria**, dirigida a personas con tarjeta TIS que hayan realizado gastos farmacéuticos en farmacias de fuera de Euskadi, así como a mutualistas de MUFACE, MUGEJU e ISFAS.

Las ayudas solicitadas se abonarán en dos plazos (en el tercer trimestre de 2021 y en el primer trimestre de 2022), aunque si la solicitud fuera entregada con posterioridad al 15 de julio de 2021, se realizará un único pago en el primer trimestre de 2022.

Salud

EL DEPARTAMENTO DE SALUD Y LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA AMPLÍAN HASTA 827 PLAZAS EL CONVENIO PARA LA ATENCIÓN SOCIOSANITARIA A LAS PERSONAS CON TRASTORNO MENTAL GRAVE

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la ampliación y mejora del convenio de colaboración entre el Departamento de Salud y la Diputación Foral de Bizkaia por la que **se incorporan 44 plazas más** de alojamiento residencial que incrementarán las 783 ya existentes. **En total 827 personas** se benefician de este convenio con una distribución indicativa de 392 en centros residenciales o viviendas con apoyos y 435 en centros de día).

La ampliación del convenio conlleva, asimismo, **un aumento en consonancia del presupuesto previsto para 2021 en 775.000 euros y en 2022 en 900.000 euros**. Gracias a la ampliación y mejora del acuerdo doce personas residen desde mediados de abril en un nuevo centro, gestionado por el Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS) y que se ubica en la Casa del Mar de Santurtzi. Un equipo multidisciplinar de profesionales, apoyados por el Servicio Vasco de Salud-Osakidetza, atiende este centro de Santurtzi para personas con enfermedad mental crónica que no pueden satisfacer adecuadamente sus necesidades en su entorno habitual.

Las residencias, pisos tutelados y centros de día constituyen los dispositivos más adecuados para las personas con trastorno mental grave que no requieren ya de cuidados con la intensidad hospitalaria y que, sin embargo, tampoco se hallan en situación de volver a sus hogares. Estas personas seguirán recibiendo la asistencia sanitaria que requieran de Osakidetza de forma ambulatoria, y, además, las prestaciones propias de la cartera de servicios sociales en este tipo de centros.

Colaboración interinstitucional

Este convenio, que entró en vigor en 2019 y se prolongará hasta 2022, pretende destinar más recursos a centros de atención diurna, viviendas con apoyo o residencias de larga estancia con el fin de ofrecer una atención más individualizada a estas personas.

Los servicios y prestaciones de los centros destinados a personas con trastorno mental grave o crónico son competencia de las Diputaciones Forales y corresponde a las mismas facilitar el acceso a dichos centros a las personas beneficiarias. El Gobierno Vasco, por su parte, colabora en la puesta en marcha de dichos centros y aporta la asistencia sanitaria necesaria. Gracias a este convenio, además, colaborará financieramente en el desarrollo de plazas para este colectivo en centros del sistema vasco de servicios sociales, dado su carácter sociosanitario.

La ampliación del convenio refleja la voluntad inequívoca de ambas instituciones por avanzar en servicios sociales de garantía pública, con el objetivo en este caso de mejorar los apoyos para la participación y calidad de vida de las personas con problemas de salud mental.

Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

EL GOBIERNO VASCO DA LUZ VERDE A LAS AYUDAS A LA CONCILIACIÓN DE LA VIDA FAMILIAR Y PERSONAL Y A LAS DESTINADAS A LAS FAMILIAS CON HIJOS E HIJAS

El Consejo de Gobierno ha dado hoy su visto bueno al paquete de ayudas ordinarias a la conciliación y a las prestaciones para familias con hijos e hijas expuesto por Beatriz Artolazabal, Consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales. En total, el Gobierno Vasco invertirá cerca de 64 millones de euros entre ambas en este 2021.

37 de esos millones irán destinados a financiar las ayudas de conciliación ordinarias, ya que hay otras líneas extraordinarias adoptadas para paliar los efectos pandémicos. Estas ayudas, que se distribuyen desde hace más de dos décadas en Euskadi, cuentan con varias líneas de actuación

En general, las medidas de apoyo a las familias incluyen:

- Ayudas a personas trabajadoras en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas. (Incluyendo las denominadas ayudas de paternidad/maternidad para cónyuges no gestantes puestas en marcha en 2019).
- Ayudas a personas trabajadoras en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria.
- Ayudas por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores.

En concreto, una partida de 28 millones de euros está diseñada para dar respuesta a personas trabajadoras que se encuentren en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o hijas. Hay otros casi 700.000 euros enfocados a las ayudas por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o hijas menores de 3 años. Y 1,14 millones de euros van a las ayudas a personas que se encuentren en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria. Además, se reservan 7 millones para las ayudas a progenitores que no hayan disfrutado de la licencia de maternidad.

Ayudas por hijo/a

Otros 27 millones serán dirigidos a las ayudas económicas de apoyo a las familias con hijos e hijas a cargo. Se pretende así proporcionar apoyo económico a las familias para contribuir a atender las dificultades extraordinarias que sobrevienen con el incremento de hijos e hijas por nacimiento, adopción, delegación de guarda para la convivencia preadoptiva o tutela.

CUÁNDO SE DAN LAS AYUDAS Y NÚMERO DE PAGOS SEGÚN SITUACIÓN		
Número de hijo o hija	Número de pagos	Cuándo / Situación
Por el primer hijo o hija	1 pago	<ul style="list-style-type: none"> • Nacimiento • Adopción • Acogimiento preadoptivo • Tutela (menores de 18 años)
Por el segundo hijo o hija	3 pagos	1 <ul style="list-style-type: none"> • Nacimiento • Adopción • Acogimiento preadoptivo • Tutela (menores de 18 años)
		1 Al cumplir 1 año de edad
		1 Al cumplir 2 año de edad
Por el tercer hijo o hija y sucesivos	7 pagos	1 <ul style="list-style-type: none"> • Nacimiento • Adopción • Acogimiento preadoptivo • Tutela (menores de 18 años)
		1 Al cumplir 1 año de edad
		1 Al cumplir 2 años de edad
		1 Al cumplir 3 años de edad
		1 Al cumplir 4 años de edad
		1 Al cumplir 5 años de edad
		1 Al cumplir 6 años de edad

Esta ayuda es de un mínimo de 400 euros y un máximo: 900 euros. Este importe varía en función de la renta familiar.

IMPORTE DE LA AYUDA EN FUNCIÓN DE LA RENTA FAMILIAR		
Renta familiar	Importe ayuda por hijo o hija	Importe ayuda por hijo/a con discapacidad o situación dependencia
20.000 € o menos	900 €	1.800 €
Entre 20.000 y 30.000 €	500 €	1.000 €
Más de 30.000 €	400 €	800 €

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ CASI 6 MILLONES DE EUROS PARA ATENDER LAS SOLICITUDES DE AYUDAS COVID 2021 DIRIGIDAS A PROFESIONALES DEL SECTOR CULTURAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy incrementar el importe máximo inicialmente previsto para las ayudas COVID-19 dirigidas a profesionales de la cultura en 2021. Así, los 1,1 millones de euros iniciales se incrementarán en otros 4.810.000 euros para poder dar la respuesta más adecuada a las solicitudes recibidas. Así, el Departamento de Cultura y Política Lingüística destinará 5.910.000 euros a ayudar a los y las profesionales de la cultura a través de estas subvenciones especiales.

El plazo para presentar las solicitudes a estas subvenciones, que tienen como objetivo paliar el impacto del COVID, ha sido de un mes, desde el 17 de marzo hasta el 16 de abril. La principal condición que recogía la convocatoria era que todas aquellas personas, autónomas, empresas y entidades profesionales de la cultura que se presentasen debían haber sufrido en 2020 una reducción superior al 20% en su facturación con relación a 2019.

En un mes se recibieron un total de 416 solicitudes, de las cuales, por cumplir los requisitos, se han admitido 361 solicitudes. La distribución de las subvenciones presentadas por sectores es la siguiente:

Sector	Solicitudes
Música	138
Artes Escénicas	115
Creación audiovisual	99
Intermediación y asesoría cultural	19
Artes visuales	18
Arqueología y patrimonio	13
Literatura y libros	11
Bertsolarismo	3
Total	416

Tras el análisis de las solicitudes se ha observado que el año pasado el descenso de facturación de las personas profesionales del sector cultural ascendió a un total de 88,2 millones de euros. Esto supone un descenso medio de facturación del 64,6 por ciento. La intención del Departamento de Cultura y Política Lingüística es atender todas las solicitudes de forma adecuada y eficaz, por lo que elevará la bolsa inicial de 1,1 millones de euros a 5,9 millones de euros. El objetivo es paliar la difícil situación que han vivido los y las profesionales del sector de la cultura debido a la pandemia. Cada solicitante recibirá una media de 16.364 euros.

Debido a la pandemia muchas actividades se han suspendido y también ha sido evidente la desaceleración en la actividad. Lo que ha acarreado contextos variables y un alto grado de incertidumbre para el sector poniendo en riesgo la supervivencia de las estructuras culturales. Según los datos publicados por el Observatorio Vasco de la Cultura al inicio de la pandemia, la actividad cultural se redujo un 82,6% y se perdió un 43% de los puestos de trabajo. Así lo demuestran varios estudios internacionales y, por ejemplo, en la Unión Europea, ha sido uno de los sectores más afectados tras el transporte aéreo y por delante del turismo. Así lo recoge el informe "Rebuilding Europe. The cultural and creative economy before and after the COVID19".

La aprobación del aumento de crédito a estas subvenciones ratifica el compromiso del Gobierno Vasco de apoyar a los y las creadoras y profesionales de la cultura. Una vez finalizadas las tramitaciones de todas las solicitudes el Departamento de Cultura y Política Lingüística tiene previsto iniciar lo antes posible el pago de las subvenciones.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA UNA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES DE 2,4 MILLONES DE EUROS PARA PONER EN VALOR Y DIFUNDIR EL PATRIMONIO CULTURAL VASCO

El Gobierno Vasco ha aprobado en su Consejo de Gobierno de hoy una convocatoria de subvenciones por importe de 2.400.000 euros para la promoción de actividades destinadas a la puesta en valor y difusión del Patrimonio Cultural Vasco para el periodo 2021-2023.

Las actividades subvencionadas por el Departamento de Cultura y Política Lingüística serán las siguientes:

- Actuaciones sobre Bienes Culturales de Protección Especial o Media, declarados o con expediente incoado para su declaración con categoría de carácter colectivo.
- Reutilización de Bienes Culturales de Protección Especial o Media, de carácter rural o industrial, declarados o con expediente incoado para su declaración con una categoría individual.
- Acciones destinadas a destacar, difundir, valorar o reconocer la importancia de los Bienes Culturales de Protección Especial o Media.
- Financiación de las expropiaciones de Bienes Culturales Inmuebles de Protección Especial o Media y/o de su entorno correspondiente.
- Cualquier otra actividad relacionada con la defensa, enriquecimiento y protección de los Bienes Culturales incluidos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco.

Las actividades objeto de subvención deberán estar ya iniciadas o iniciarse dentro del ejercicio 2021 y finalizar, como máximo, antes del 31 de diciembre de 2023. Podrán presentar la solicitud las personas físicas o jurídicas propietarias de los bienes o las personas jurídicas públicas o privadas sin ánimo de lucro.

En el periodo 2020-2022 se subvencionaron 32 proyectos de conservación y protección del Patrimonio Cultural Vasco.